

Montehermosok Dokumentazio Zentroaren “Erreferentziak” erakusketa zikloaren edizio berria aurkeztu du

Berritasun gisa, mediatekaren erabiltzaileei ekipoak maileguan utziko zaizkie, erakusketan jarritako wifi eremuan baliatu ahal izateko

Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta antolatutako jarduera-programaren barruan, “Artea eta teknologia” erakusketa bibliografikoa inauguratuko da apirilaren 7an Montehermoso kulturunean. Erakusketa “Erreferentziak” proiektuaren barruan sartzen da, zeina 2013an sortu baitzuen Dokumentazio Zentroak, helburu bikoitza lortzeko asmoz: alde batetik, zentroan dauden dokumentu funtsen berri ematea (bibliografikoak, soinuak eta/edo ikus-entzunezkoak) eta bestetik, azken urteetako arte jarduera nagusien bilakaera erakustea.

Aurtengo edizioan, artearen eta teknologiaren arteko harremana lantzen du zikloak, jarduera bien jatorrian azaltzen baita harreman hori. Zentzu horretan, aipatu beharra dago artea grezieraz *techné* esaten zela.

Historian zehar, arteak bere egin ditu une bakoitzean zientziak edo teknologiak eskainitako tresnak eta teknikak; hala ere, XIX. mendean argazkigintza sortzen denean eta horren ondorioz irudiak mekanikoki erregistratu eta erakusten direnean, orduantxe sortzen da artearen eta teknologiaren arteko harremana gaur ezagutzen dugun moduan. Esan dezakegu argazkigintza dela arte eta teknologia binomioa batzen dituen lehen bitartekoa.

Azken urteetan, etengabeko aurrerapen teknologikoen eragina izan dute bai sorkuntza prozesua ulertzeko eran, baita artisten eta publikoen arteko komunikazioaren formetan ere bai. Artista nahiz publiko, biek bizi dira tresna teknologikoren batek eguneroko praktika gehienak gobernatutako munduan, non sentsibilizazio berria behar izaten den tresna horiek erabiltzeko.

Erakusketak bibliografia-funtsen aukera zabala jartzen du eskura, eta horien bitartez artearen eta teknologiaren arteko harremana agerian utzi nahi da. Euskarri ezberdinetako dokumentuak dira (liburuak, katalogoak, artikuluak eta dokumentalak), eta irailera arte txandakatuz joango dira erakusketan. Teknologia bitartekoak beren sorkuntza lanaren oinarritzat hartu duten artisten hautaketa batek osatzen du erakusketa.

Berritasun gisa, wifi eremu bat egokitu da erakusketan, funtsak nahierara kontsultatu eta haiekin lan egin ahal izateko. Gainera, mediatekaren erabiltzaileei ekipoak maileguan utziko zaizkie, espazio horretan baliatzeko.

Izan ere, “Erreferentziak” gaur egungo arte ekoizpenaren eremu eta eraldaketa desberdinetara hurbiltzeko asmoa du, Dokumentazio Zentroan bildu diren dokumentu funtsen bidez.

Hausnarketa eta eztabaida publikoa pitzarazteko tresna izan nahi du, eta zentroak gordetzen duen bibliografia funts handia ezagutarazi.

Erakusketa osatzen duten funtsak Dokumentazio Zentroan gordetzen dira, eta erakusketa amaitu ondoren —irailaren 27an— bertan kontsultatu edo maileguan hartu ahalko dira. Datu bibliografikoak online katalogoan ere eskuratu daitezke.

Montehermoso presenta una nueva edición del proyecto REFERENCIAS, ciclo de exposiciones del Centro de Documentación

Como novedad, a las personas socias de la mediateca se les facilitará el préstamo de equipos para su uso en la zona wifi habilitada en la exposición.

En el contexto del programa de actividades en torno al Día Internacional del Libro, el 7 de abril se inaugura en el claustro del Centro Cultural Montehermoso la exposición bibliográfica “Arte y Tecnología”. Esta exposición pertenece al proyecto “Referencias”, ciclo de exposiciones del Centro de Documentación, que se inició en 2013 con un doble objetivo: por una parte, dar a conocer el conjunto de los fondos documentales, bibliográficos, sonoros y/o audiovisuales, disponibles en el centro y, por otra, mostrar la evolución de las principales prácticas artísticas de los últimos años.

En esta edición, el ciclo aborda la relación entre arte y tecnología, una relación que viene dada en el origen de ambas actividades. En este sentido, cabe reseñar que arte en griego se decía *tecné*.

A lo largo de la historia, el arte se ha apropiado de las herramientas y técnicas que la ciencia o tecnología le ofrecían en cada momento, aunque es en el siglo XIX, con la aparición de la fotografía y el consiguiente registro mecánico de imágenes y su reproducción, que surge la relación entre arte y tecnología tal y como hoy la conocemos. Podemos decir que es la fotografía el primer medio que une el binomio arte y tecnología.

En los últimos años, los continuos avances tecnológicos no sólo han influido en la forma de entender el proceso creativo, sino que han afectado también a las formas de comunicación entre artistas y públicos, inmersos ambos en un mundo en el que la mayoría de las prácticas cotidianas pasan por un dispositivo tecnológico, para cuyo uso se necesita una sensibilización nueva.

La exposición acoge una amplia selección bibliográfica que se pueden consultar abiertamente y a través de los cuales se muestra la relación entre arte y tecnología. Los documentos se presentan en diferentes soportes: libros, catálogos, artículos y documentales que rotarán en el espacio expositivo hasta el mes de septiembre. La muestra se complementa, además, con una selección de artistas que han utilizado los medios tecnológicos como soporte de su trabajo creativo.

Como novedad de esta edición se ha creado una zona wifi dentro de la exposición donde poder consultar y trabajar libremente con los fondos. Además, las personas socias de la mediateca se les facilitará el préstamo de equipos para su uso en este espacio.

“Referencias” pretende perfilarse como una aproximación a diferentes esferas y transformaciones de la producción artística contemporánea, a través de los fondos documentales compilados en el Centro de Documentación. Un medio para estimular la reflexión y el debate público, y dar visibilidad al amplio fondo bibliográfico que se guarda en el centro.

Todos los fondos expuestos se conservan en el Centro de Documentación, y una vez finalizada la exposición, que durará hasta el 27 de septiembre, estarán disponibles para su consulta y/o préstamo.